

ERAIKUNTZA SEKTOREA EUSKADIN

**2024 eta 2025. urtearen
hasiera**

EDUKIEN AURKIBIDEA

1.- SEKTOREAREN JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA	4
2.- ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INPAKTUA SEKTOREAN	7
3.- ETXEGINTZA ETA BIRGAITZE JARDUERA	10
4.- ENPRESA EGITURA ETA SORTUTAKO ENPLEGUA	16
5.- SEKTOREA BULTZATZEKO ESTRATEGIAK	18
6.- ONDORIOAK	20

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuko prezioaren arabera benetako BEGaren eta eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren bilakaeren alderaketa. Urte arteko aldakuntza-tasa. 2010-2024-2025 (kateatutako bolumenaren indizea).....	4
2. grafikoa. EAEko eraikuntza-sektorearen urteko BEGa. 2011-2025 (Prezio korranteak. Mila euro).....	4
3. grafikoa. EAEko eraikuntza sektorearen pisu erlatiboa. 2023-2025 (EAEko BEGaren gainean).....	5
4. grafikoa. Eraikuntza sektorearen koiuntura-indizea EAEn. 2011-2024	5
5. grafikoa. EAEko eraikuntzako koiuntura-indizea. 2024-2025.....	6
6. grafikoa. Eraikuntzako kostuen indizea EAEn. 2011-2024.....	7
7. grafikoa. EAEko etxegintzaren sektoreko lehengaien kostuen indizea eta eskulanaren kostua. 2015-2024	8
8. grafikoa. Eraikuntza-kostuen indizea 2025ean*	9
9. grafikoa. Obra Handien lizentzien bilakaera Euskadin, obra motaren arabera. 2010-2023)	10
10. grafikoa. Obra-lizentziak eraikuntza-sektoreko obra motaren arabera. 2023-2025 (II. hiru hilekoa).....	12
11. grafikoa. Obra Handien lizentzien aurrekontu osoa Euskadin. 2019-2024.....	13
12. grafikoa. Batez besteko aurrekontua obra motaren arabera, 2023an eta 2024an	14
13. grafikoa. Hasitako etxebizitza libreak. 2015-2024	14
14. grafikoa. Amaitutako etxebizitza libreak. 2015-2024.....	15
15. grafikoa. Euskadin babes motaren batekin hasitako etxebizitzaren bilakaera. 2015-2024 eta 2025eko lehen hiru hilekoa	15
16. grafikoa. Euskadin babes motaren batekin amaitutako etxebizitzaren bilakaera. 2015-2024 eta 2025eko lehen hiru hilekoa.....	15
17. grafikoa. Euskadiko eraikuntza-sektoreko establezimendu kopuruaren eta ekonomiako establezimenduen guztizko kopuruaren bilakaera 2008-2024 (erreferentziazko urteko urtarilaren 1eko datuak) (establezimendu kopurua eta aldakuntza-tasak).....	16
18. grafikoa. Euskadiko eraikuntza sektorearen enpresa-sarearen pisuaren bilakaera Euskadin eta Espainian 2008-2023 2008-2024	16
19. grafikoa. Enpleguaren aldakuntza-tasa Euskadin: oro har eta eraikuntzaren sektorean. 2006-2024.....	17
20. grafikoa. EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua eraikuntzaren sektorean. 2010-2025 (III. hiru hilekoa). (Milaka pertsona eta EAEko enpleguaren gaineko pisu erlatiboa).....	17


1.- SEKTOREAREN JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA

Eraikuntza sektorearen Balio Erantsi Gordinak (BEG) % 2,6ko hazkundera izan zuen 2024an; hau da, EAEko hazkundera baino sei hamarren handiagoa

Euskadiko eraikuntza sektorearen jarduera ekonomikoa % 2,6 hazi zen 2024an, 2023ko datuekin alderatuta. Gorakada hori Euskadiko ekonomiaren BEGak 2024an izandako hazkundera (% 2) baino sei hamarren handiagoa izan zen.

2025eko hirugarren hiruhilekoan, sektorearen hazkunde-erritmoa hobetu egin da eta, ondorioz, BEGaren urte arteko hazkunde-tasa % 5ekoa izan da 2024ko hiruhileko berarekin alderatuta, eta EAEk aldi horretan izandako hazkunde globalaren gainetik geratu da datuetan argi eta garbi ikus daitekeen moduan.


1. grafikoa Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuko prezioaren arabera benetako BEGaren eta eraikuntza-sektorearen balio erantsiaren bilakaeren alderaketa. Urte arteko aldakuntza-tasa. 2010-2024-2025 (kateatutako bolumenaren indizea)



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak

Ekoizpen nominalari dagokionez, eraikuntzaren sektoreak bost mila milioi euro inguruko (zehatz-mehatz esanda, 4.941 milioi euro) balio erantsia sortu zuen 2024ko ekitaldian. Hau da, Atzeraldi Handia hasi zenez geroztik izandako erregistrorik handiena lortu zuen datu nominalari dagokienez.


2. grafikoa. EAEko eraikuntza-sektorearen urteko BEGa. 2011-2025 (Prezio korranteak. Mila euro)



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak

Sektorearen jardueraren bilakaera positibo horrek bultzatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia osoarekiko pisu eta garrantzi erlatiboa irabazi du. Hala, EAEko BEG guztiarekiko eraikuntzaren sektoreak sortutako BEGaren pisu erlatiboa % 5,6koa izan zen 2025eko hirugarren hiruhilekoan, 2023ko eta 2024ko ratioa baino hamarren bat handiagoa.

3. grafikoa. EAEko eraikuntza sektorearen pisu erlatiboa. 2023-2025 (EAEko BEGaren gainean)




Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak


Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren sektorearen koiuntura-indizeak jardueraren gorakada bat erregistratu zuen 2025eko lehen hiru hiruhilekoetan

Sektorearen jarduerak izandako bilakaera aztertzeke beste modu bat Eustatek argitaratzen duen Koiunturaren Indizera jotzea da. 2022an koiuntura-indize horrek izandako sektorearen dinamismo handiaren eta 2023an neurri txikiagoan izandako dinamismoaren ondoren, sektore osoan jarduerak gorakada neurritsua izan du eta, bereziki, etxegintzaren azpisektorean. Hala, indize horrek 2023an eta 2024an urteko % 3,3ko eta % 1,9ko hazkundeak izan ditu, hurrenez hurren.

4. grafikoa. Eraikuntza sektorearen koiuntura-indizea EAEen. 2011-2024





Urtetik urterako aldaketa %



Iturria: Eustat.

2025eko koiunturaren datuak positiboagoak dira, eta aurtengo erdialdera arte jarduerak gora egingo duela adierazten dute, bereziki Etxegintzaren azpisektorean. Hala, indizea % 10,1 handitu da 2025eko bigarren hiruhilekoan, 2024ko hiruhileko berarekin alderatuta, eta % 10,9 hirugarren hiruhilekoan. Joera-aldaketa positibo horrek 2025 osorako aldaketa-tasa 2024koa baino nabarmen handiagoa izatea eragin beharko luke.

5. grafikoa. EAEko eraikuntzako koiuntura-indizea. 2024-2025




Iturria: Eustat. Eraikuntza sektoreko koiuntura-indizea

2. ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INPAKTUA SEKTOREAN


2022tik aurrera izandako kostu-igoera handiaren eragin negatiboak bere horretan jarraitu zuen 2024an eta 2025eko lehen hiruhilekoetan

Eraikuntzaren sektoreak, azken urteotan, kostuek jasandako gorakada handiari aurre egin behar izan dio. Igoera horrek eragin negatiboa du eraikuntzaren jardueran, eta eragina du etxebizitzaren eta birgaitze-jardueraren azken prezioan, bai eta eragiketen bideragarritasun ekonomikoan ere.

6. grafikoa. Eraikuntzako kostuen indizea EAEn. 2011-2024



% Urtetik urterako aldakuntza




Iturria: Eustat. Eraikuntza sektoreko kostuen indizea


2022an, kostuak bat-batean eta asko hazi ziren (+% 12), eta 2023an goranzko joera mantendu zen (+% 4,3). 2024an, joera inflazionista motelduz joan zen (+% 2,1), baina sektorearen kostuak hazten jarraitu zuten, eta serie historikoaren mailarik altuenetara iritsi ziren. Egoera horren ondorioz, eraikuntzaren sektoreko EAEko enpresen kasuan, ekonomikoki jasangarriak diren proiektuak aurrera eramateko zailtasunak gero eta handiagoak dira.

Etxegintzaren azpisektoreko kostuen kasuan, joera sektore osokoaren antzekoa izan da. Ondorioz, EAEn etxebizitzaren eraikuntzan lan egiten duten enpresen kasuan, kostu historikoari dagokionez maila handienetara iritsi dira. Izan ere, 2025. urtetik, indize horien hazkunde metatua oso antzekoa izan da lehengaien kostuari zein eskulanaren kostuari dagokienez.

7. grafikoa. EAEko etxegintzaren sektoreko lehengaien kostuen indizea eta eskulanaren kostua. 2015-2024



% Urtetik urterako aldakuntza



Iturria: Eustat. Eraikuntza sektoreko kostuen indizea


Kostuen osagai nagusien (hau da, lehengaiak eta eskulana) bilakaera aztertzean, ikusten da lehengaien kostuak eragin zuela 2022an eraikuntzaren sektorean eta etxegintzaren azpisektorean sortutako eskaintza-krisia; izan ere, ekitaldi hartako gorakada % 14,6koa izan zen. Eskulanaren kostuak ere KPIaren gainetik hazi ziren, baina erritmo apalagoan (% 5,8).

Aldiz, 2023an eta 2024an, goranzko joera globala mantendu zen arren, lehengaien kostuen hazkunde-erritmoa motelduz joan zen, eta 2024an apenas hazi ziren (+% 0,9). Aldiz, eskulanaren kostuek hazkunde-erritmo iraunkorrari eutsi zioten, KPIa nabarmen gaindituz, eta % 4,4 eta % 5,4 igo ziren 2023an eta 2024an, hurrenez hurren.


2025eko uztailetik aurrera, kostuen urtetik urterako hazkundea pixka bat moteldu da.

Kostuek eraikuntza-enpresen jardueran duten eragin nabarmenari lotutako arazoak bere horretan jarraitu dute 2025ean. Hala, ekitaldi honetan kostuek handitzen jarraitu dute, nahiz eta, 2025eko uztailetik aurrera, zertxobait mantsotu diren. Horren ondorioz, indizearen maila zertxobait gutxitu da, nahiz eta oraindik ere hazten ari den, 2024ko aldi berarekin alderatuta.

8. grafikoa. Eraikuntza-kostuen indizea 2025ean*



Ald. % interanual



Iturria: Eustat. Eraikuntza sektoreko kostuen indizea

3. ERAIKUNTZA ETA BIRGAITZE JARDUERA

Birgaitze-jarduerak maximo historiko berri bat lortu zuen 2024an; aldiz, eraikuntza-lizentziak % 10 gutxitu ziren.


2024an, obra handietarako 3.866 lizentzia erregistratu ziren Euskadin, Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) arabera. Beste nolabait esana, 2023ko jarduera mailaren antzekoa izan zen, obra handietarako 3.883 lizentzia erregistratu baitziren orduan.

Obra motaren arabera azterketak erakusten du birgaitze-jarduerak portaera hobea izan zuela, eta maximo historikoa lortu zuela berriro ere. Izan ere, guztira, 3.456 lizentzia eman ziren 2024an. Horrek esan nahi du urteko lizentzia kopurua pixka bat igo zela (+% 0,7), 2023koarekin alderatuta. Horrela, birgaitze-jardueraren hazkunde-erritmoa moteltzen joan zela dirudi, azken urteetan ondoz ondoko errekor historikoak lortu ondoren.

Etxegintza-jarduera, berriz, ez zen handitzeko gai izan. 2024an, eraikuntza berriko 346 lizentzia zenbatu ziren EEEEEren arabera; hau da, 2023arekin alderatuta, % 10 gutxiago, baina 2023an izandako jaitsiera baino txikiagoa (-% 25,2) izan zen.


9. grafikoa. Obra Handien lizentzien bilakaera Euskadin, obra motaren arabera. 2010-2023)

Sektorea, guztira





Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Etxegintzaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


Obra motaren arabera



■ Eraikuntza...



■ Birgaitzea



Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Etxegintzaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


2025eko lehen sei hilekoan, 2024ko datuekin alderatuta, jarduera mailari eutsi egin zaiola dirudi

2025eko lehen hiru hiruhilekoetan, EAEn eraikuntza berriko 255 lizentzia berri zenbatu ziren. 2025 bukaerara arte jarduera-erritmo horri eusten bazaio, 2025 osoan erregistratutako lizentzia kopurua 340koa izan daiteke; hau da, 2024ko antzeko zifra.




Birgaitze-lanetako jarduerari dagokionez, obra handietarako 2.569 lizentzia erregistratu ziren 2025eko lehen hiru hiruhilekoetan. Jarduera hori urtearen amaierara arte proiektatzen badugu, ekitaldi osoko lizentzia kopurua 3.400 edo 3.450 ingurukoa litzateke, eta datu hori ere 2024ko mailaren antzekoa da.

10. grafikoa. Obra-lizentziak eraikuntza-sektoreko obra motaren arabera. 2023-2025 (II. hiruhilekoa)

Guztira



Obra motak




Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritzak

Sektorearen jardueraren aurrekontu ekonomikoa nabarmen igo da 2023koarekin alderatuta, bai birgaitze-jarduerari dagokionez, bai eraikuntza-jarduerari dagokionez.

Obra-lizentziei lotutako aurrekontuari esker, etxebizitzak eraikitzeko jarduerak, hala nola birgaitzekoak, zuzenean sortzen duen magnitude ekonomikoaren hurbilketa lor dezakegu.

Eraikuntza berriko lizentzien aurrekontua 897 milioi eurokoa izan zen 2024an, eta birgaitzeko lizentzia 806 milioi eurokoa. Bi kasu horietan, datu ofizialak eskura daudenetik maila altuenetara iritsi dira. Birgaitze-jarduerari lotutako aurrekontua % 27,5 hazi da 2023koarekin alderatuta. Gauza bera gertatu da eraikuntza berriko jarduerara bideratutako aurrekontuarekin (% 17,5).

11. grafikoa. Obra Handien lizentzien aurrekontu osoa Euskadin. 2019-2024




Iturria: Etxegintzari eta etxebizitzari buruzko inkesta, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.

Obra motaren arabera eragin ekonomikoa oso desberdina da birgaitze-obra bat edo eraikuntza berriko obra izatearen arabera. 2024an, eraikuntza berriko obren batez besteko aurrekontua 2,8 milioi eurokoa izan zen, 2023an erregistratutakoa (2,0 milioi euro) baino askoz handiagoa. Birgaitze-lanen batez besteko aurrekontua, berriz, 233 mila eurokoa izan zen 2024an, eta 2023koa ere aise gainditu zuen (183 mila euro). Beste nolabait esanda, 2023 eta 2024 artean, birgaitze-lanen neurriari dagokionez hazkundera oso handia izan zela dirudi.

Adierazle horiek erakusten dute eraikuntza-jarduerak garrantzi ekonomiko handia izateaz gain, eragin biderkatzailea izan dezakeela balio erantsian eta EAEko ekonomian, oro har, sortutako enpleguan. Beraz, datozen urteetan eraikuntza-jarduera hori hobetzeak eragin oso positiboa izango luke sektorean bertan eta EAEko BEG osoan.

12. grafikoa. Batez besteko aurrekontua obra motaren arabera, 2023an eta 2024an




Iturria: Etxegintzari eta etxebizitzari buruzko inkesta, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.

2024an, amaitutako etxebizitza libreen hazkunde neurritsua erregistratu zen; aldiz, etxebizitza babestuen kasuan, 2024an nabarmen igo ziren

Hasitako etxebizitza libreen kopuruak behera egin zuen zertxobait (3.423 etxebizitza 2024an, eta 3.743 etxebizitza 2023an), eta EAEn nabarmen egin zuen gora etxegintzak 2025eko lehen hiruhilekoan. Hala, Eusko Jaurlaritzaren Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, hiru hilabete eskasean hasitako etxebizitza kopurua 1.322koa izan zen.


13. grafikoa. Hasitako etxebizitza libreak. 2015-2024



Iturria: Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzaren Estatistika. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza

Bestalde, 2024an amaitutako etxebizitza libreek zertxobait gora egin zuten 2024an: 2023an 2.667 etxebizitza izatetik, 2024an 2.701 etxebizitza izatera igaro ziren. 2025eko hasieran, aldiz, hasitako etxebizitza kopurua 531koa zen.

14. grafikoa. Amaitutako etxebizitza libreak. 2015-2024




Iturria: Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzaren Estatistika. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza

Amaitzeko, 2024an, hobekuntza hauteman daiteke babes motaren bat zuten hasitako eta amaitutako etxebizitzak aztertuz gero. Hasitako etxebizitza kopurua igo egin zen 2023tik 2024ra: 1.978 etxebizitzatik 2.110 unitatera; amaitutako etxebizitzak, berriz, asko hazi ziren: 2023an, 1.097 unitatetik, ia 2.000 unitatera 2024an (1.956 etxebizitza, zehazki).


2025aren hasierako datuak, ordea, ez ziren horren positiboak izan hasitako etxebizitzaren kasuan; aitzitik, portaera hobea izan zuten 2025eko lehen hiruhilekoan amaitutako etxebizitzari buruzkoek. Hala, 436 etxebizitza erregistratu ziren hiruhileko bakar batean, eta 2024ko hiruhilekoko batezbestekoan baino erritmo handiagoan hazi ziren.

15. grafikoa. Euskadin babes motaren batekin hasitako etxebizitzaren bilakaera. 2015-2024 eta 2025eko lehen hiruhilekoa



Iturria: Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzaren Estatistika. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza

16. grafikoa. Euskadin babes motaren batekin amaitutako etxebizitzaren bilakaera. 2015-2024 eta 2025eko lehen hiruhilekoa




Iturria: Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzaren Estatistika. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza

4. ENPRESA EGITURA ETA SORTUTAKO ENPLEGUA

Eraikuntza sektoreko enpresen kopuruak behera egiten jarraitu zuen 2024an, baina ez gehiegi.

2024ko urtarrilaren 1ean, 19.433 establezimendu zeuden EAEko eraikuntza sektorean; hau da, urtebete lehenagoko datuekin alderatuta (19.645 establezimendu), % 1,1 gutxitu ziren.


17. grafikoa. Euskadiko eraikuntza-sektoreko establezimendu kopuruaren eta ekonomiako establezimenduen guztizko kopuruaren bilakaera 2008-2024 (erreferentziako urteko urtarrilaren 1eko datuak) (establezimendu kopurua eta aldakuntza-tasak)



Iturria: Eustat. DIRAE

2008tik hona, EAEko eraikuntzaren sektorea osatzen zuen enpresa-sarearen ia erdia desagertu da. Hala, 2008an 38.000 establezimendu baino gehiago ziren, eta 2024an 19.433. Hala, eraikuntzaren sektoreko enpresa-sarearen garrantzi erlatiboa murriztu egin da, duela 16 urte establezimenduen % 17 izatetik gaur egun % 12 izateraino.

18. grafikoa. Euskadiko eraikuntza sektorearen enpresa-sarearen pisuaren bilakaera Euskadin eta Espainian 2008-2023 2008-2024




Iturria: Eustat. DIRAE
 EIN. Enpresa Aktiboaren Direktorioa

Era berean, Atzeraldi Handiaren osteko susperraldi ekonomikoarekin, enpleguak hazkunde nabarmena izan zuen aurreko hamarkadan. 2013an maila minimotan egon zen (enplegua 46 mila langiletara gutxitu zen) eta, ekonomia suspertzeko prozesuan nabarmen hazi zen, 2022an 58 mila lanpostu ingururaino.

Baina, 2022. urtetik, sektorearen enplegu-sorkuntza prozesuan nolabaiteko geldiera gertatu dela dirudi. Hala, 2023an $-%2,9$ eta 2024an $-%1,6$ egin zuen behera langileen kopuruak. Datu hori EAEko biztanleria okupatu osoak izandako gorakada neurritsuarekin kontrajarrita dago.


19. grafikoa. Enpleguaren aldakuntza-tasa Euskadin: oro har eta eraikuntzaren sektorean. 2006-2024



2025ean, enplegua 58.000 enplegutik gora igo da, eta urteko bigarren hiruhilekoan 60 mila enplegutik gora egon da (beste nolabait esanda, 2012tik daturik onena izan da).

2025eko lehen sei hilekoan, badirudi sektoreak dinamismo handiagoa izan zuela enplegua sortzeko prozesuan EAEko ekonomia osoak baino, eta 2025eko lehen hiru hiruhilekoetan modu egonkorrean gaintitu zuen 58.000 enpleguko muga (2011tik izandako daturik onena).

20. grafikoa. EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua eraikuntzaren sektorean. 2010-2025 (III. hiruhilekoa). (Milaka pertsona eta EAEko enpleguaren gaineko pisu erlatiboa)



5.- SEKTOREA BULTZATZEKO ESTRATEGIAK

2008ko Atzeraldi Handia zela eta enpresa-sareak eta sektoreko enpleguak jasan zuten eragin handiari lotuta sektoreak bizi izandako egoera konplexua agerian uzten du txosten honek. Testuinguru horretan, etxegintzako jarduera ez da oraindik erabat suspertu. Izan ere, 2022ko hazkunde handiaren ondoren, lehengaien kostu handia ez da oraindik murriztu, eta, azken urteotan, nabarmen igo da eskulanaren kostua. Azken hori, besteak beste, sektorera profesional berriak erakartzeko zailtasunekin lotuta dago.

Egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritza zenbait estrategia ari da bultzatzen egiturazko zailtasun horiei aurre egiteko, eta estrategia horiek 2036ra begirako Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean oinarritzen dira. Itunak jasotako irizpideen artean, eraikuntza sektore erakargarria, lehiakorra eta berritzailea bultzatzea jasotzen da. Sektoreko talentuaren gaikuntza eta garapena, eta haren berrikuntza-proiektuak sustatzea eta sektore horretan emakume gehiago sartzea bultzatzea jasotzen du horrek. Sektorearen industrializazioan du estrategia horrek eragin espezifikoena.

Horrekin lotuta, Eusko Jaurlaritzaren 2025-2027ko Etxebizitzaren Gida Planaren ardatz nagusietako bat EAEko eraikuntzaren sektorearen modernizazio jasangarria eta eraldatzailea sustatzea da, modu monografikoan. Lankidetzak publiko-pribatuko sistemaren bidez, eraikuntzaren sektorearen modernizazio jasangarria eta eraldatzailea sustatu nahi da, etxebizitza-parke publikoa modu eraginkorrarekin eta jasangarriarekin eratzen laguntzeko, eraikuntza sektorearen industrializazio-estrategia ezarri.

2025-2027ko Etxebizitzaren Gida Planak, etxegintzako eraikuntza-prozesuen industrializazioa sustatzen du lerro estrategikoko gisa, honako hauekin lotutako ekimen zehatzen bidez: ikerketa, berrikuntza, prestakuntza eta aplikazio operatiboa. Horren guztiaren oinarria industrializazio sektorearen Industrializazio Estrategia da.

Estrategiaren helburua da prestakuntzaren, berrikuntzaren, ziurtatze-lanaren, produkzioaren eta lankidetzaren arloetan jardutea. Horren baitan egongo litzateke etxebizitzaren edo zuzkidura-bizitokiaren eraikuntzarako lehiaketa publikoetan pixkanaka gutxieneko industrializazio-ehuneko jakin batzuk eskatzeko helburua.

Hala, industrializazioaren eta digitalizazioaren bultzada horri esker, egoera horri eta gizartearen premia gero eta handiagoei erantzun ahal izatea lortu nahi da: kalitate handiagoa, kostuari gehiago eustea, energia-eraginkortasun handiagoa, kontsumoak murriztea eta entrega-epeak gutxitzea, besteak beste.

Esparru horretan, Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroa sortu da, eta funtsezko erreferentzia izango da jarduera-ardatz hori bultzatzeko.

Hainbat lantaldere bidez egituratzen da Foroa. Lankidetza eta finantzaketa publiko-pribatuko ereduak berrikuntza-taldeak agerian utzi du beharrezkoa dela eragile guztien inplikazioa eta lankidetza (bai esparru publikokoak, bai pribatukoak eta gizarte mailakoak). Horretarako, garatu beharreko lehentasuneko zenbait tresna definitu ditu, hala nola housing associations delakoak, fundazioak edo antzeko formulak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak protagonismo handiagoa izan dezan alokairu eskuragarriko etxebizitzak sustatzaile eta kudeatzaile gisa. Kapital mistoko erakundeak figura ere aztertu da, esparru publikoa nahiz ekimen pribatua integratzen dituzten sozietateen edo bestelako sozietate-tresna kolektibo batzuen formularen bidez, arrazoizko alokairuko babes publikoko etxebizitzak sustatzeko operazioei ekiteko.

Bigarren lantaldea industrializazioa bideratuta dago, eraikuntzaren sektorea modernizatzeko bektore gisa, eta eraikuntza sektore lehiakor, moderno eta berritzailea eratzeko neurriak ematen ditu, industrializazioaren bidez. Horretarako, sektorearen garapena eta ezarpena bizkortzeko palanka estrategiko gisa, ekonomia eta finantza arloko laguntza esparrua, pizgarri fiskalak eta kontratazio publikoaren erabilera jasotzen ditu. Era berean, zeharka eta Visesaren laguntzarekin, jardunbide eta esperientzia egokien prozesuak indartu nahi dira¹.

Etxebizitza-parkea birgaitzeko, eraberritzeko eta mantentzeko hirugarren lantaldea. Horren helburua da etxebizitzaren arloan birgaitzeari eta berronertzeari dagokienez landu beharreko lehentasunak identifikatzea, birgaitze-lanen sektorearen gaitasunak egokitzea eta hobetzea, eta birgaitze-lanetarako laguntza publikoak bizkorrago eta modu eraginkorragoan kudeatzea.

¹ Horren adibide da Sopela-Asu – Elkarriketa Lehiakorra proiektua, prozesu eta sistema industrializatuak ikertzeko eta Sopela-Asuko (Bizkaia) babes ofizialeko 33 etxebizitza alokairuan sustatzeko (BOEa) proiektuaren idazketa, zuzendaritza fakultatiboa egiteko eta obrak kontratatze (2022-2025). Ekimenak Rebuild 2023 kongresuko “Advanced Architecture Award” saria jaso du.

6. ONDORIOAK

EAEko eraikuntzaren sektorearen jarduera ekonomikoak bilakaera positiboa izan zuen 2024an eta 2025eko lehen hiru hiruhilekoetan. Sektorearen BEG % 2,6 igo zen 2024an aurreko urtearekin alderatuta; hau da, EAEko ekonomia osoaren BEGek izandako hazkundera baino sei hamarren gehiago. 2025eko hirugarren hiruhilekoan, sektorearen hazkunde-erritmoa hobetu egin zen; beraz, BEGaren urtetik urterako hazkunde-tasa % 5koa izan zen 2023ko hiruhileko beraren aldean, eta EAEko hazkunde globala baino nabarmen handiagoa izan zen.

2025eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta Euskatek argitaratu berri dituen sektorearen Koiuntura Indizeko datuak are positiboagoak izan dira eta jarduerak gora egin duela erakusten dute. Hala, intentsitate handiagoz igo ziren Etxebizitzaren azpisektorean, eta, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 10 baino gehiagoko gorakadak izan ziren. Hala, azken hiruhilekoan beherakada handirik izan ezean, 2025 osoko datuak nabarmen hobetu beharko luke 2023koa.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) datuek ez dute oraindik hobekuntza hori islatzen etxegintzako jarduerari dagokionez. 2024an, obra handietarako 3.866 lizentzia erregistratu ziren Euskadin; horrek esan nahi du 2023ko jarduera maila antzekoa izan zela (orduan, obra handietarako 3.883 lizentzia erregistratu ziren Euskadin).

Hala ere, 2024ko obra motaren arabera bilakaerak erakusten zuen birgaitze-jarduerak portaera hobea izan zuela, eta, beraz, maximo historikoa lortu zen berriz ere, guztira 3.456 lizentzia izan baitziren azken urtean. Etxegintza-jarduera, berriz, ez zen handitzeko gai izan. 2024an, eraikuntza berriko 346 lizentzia izan ziren; 2023arekin alderatuta, % 10 gutxiago. 2025eko lehen hiru hiruhilekoetan, EAEn eraikuntza berriko 255 lizentzia berri zenbatu ziren. Beste nolabait esanda, beraz, jardueraren erritmoa 2024koaren antzekoa izan zen.

Eraikuntza berriko lizentzien aurrekontua 897 milioi eurokoa izan da, eta birgaitzeko lizentziena 805 milioi eurora iritsi da. Bi kasu horietan, datu ofizialak eskura daudenetik maila altuenetara iritsi dira.

2024an, igoera neurriduna gertatu zen amaitutako etxebizitza libreetan, eta gorakada handiagoa izan zen 2025eko lehen hiruhilekoan hasitakoen artean. Nolabaiteko babesaren dute hasitako eta amaitutako etxebizitzaren kasuan, hobekuntza izan zen 2024an. Hala, hasitako etxebizitza kopurua igo egin zen 2023tik 2024ra: 1987 etxebizitzatik 2.110 unitatera; amaitutako etxebizitzak, berriz, asko hazi ziren: 2023an, 1.097 unitatetik, ia 2.000 unitatera 2024an (1.956 etxebizitza, zehazki).

2022az geroztik, eraikuntzaren sektoreak kostuek nabarmen egin dute gora, eta horrek eragin negatiboa du eraikuntzaren jardueran. 2024an eta 2025eko lehen hiru hiruhilekoetan, arazo horrek bere horretan jarraitu zuen, eta, beraz, ez ziren murriztu lehengaien kostuak ez eta eskulanarenak ere, nahiz eta 2025eko uztailaz geroztik moteltze txikia nabari den. Horren ondorioz, indizearen maila zertxobait jaitsi da, baina oraindik ere 2024ko aldi bereko datuena baino hobe da.

2025eko hirugarren hiruhilekora arte, enplegua 58.000 enplegutik gora igo zen, eta urteko bigarren hiruhilekoan 60 mila enplegutik gora egon zen (beste nolabait esanda, 2012tik daturik onena izan zen). Hain zuzen ere, gogorarazi beharrekoa da 2008az geroztik EAEko eraikuntzaren sektoreko enpresa-sarearen ia erdia desagertu dela, eta horrek enpleguan eragin nabarmena izan duela.

2025ean, orain arte, enpleguak izan duen portaera ona albiste ona da; izan ere, 2022tik aurrera, nolabaiteko geldialdia nabari zen enplegua sortzeko prozesuan aurreko hamarkadaren erdialdetik aurrera hautemandako joeran.

Egoera konplexu horren aurrean, Eusko Jaurlaritza zailtasun estruktural horiei aurre egiteko zenbait estrategia bultzatzen ari da, eta estrategia horiek 2036ko Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean oinarritzen dira. Itun horren ildo estrategiko nagusien artean, sektorea sustatzea dago, sektoreko talentuaren eta haren berrikuntza-proiektuen gaikuntza eta garapena bultzatuz, eta bertara emakume gehiagoren sarbidea bultzatuz. Sektorearen industrializazioan du estrategia horrek eragin espezifikoena.

Eusko Jaurlaritzaren 2025-2027ko Etxebizitzaren Gida Planaren ardatz nagusietako bat EAEko eraikuntzaren sektorearen modernizazio jasangarria eta eraldatzailea sustatzera bideratuta dago. Lankidetza publiko-pribatuko sistemaren bidez, eraikuntzaren sektorearen modernizazio jasangarria eta eraldatzailea sustatu nahi da, etxebizitza-parke publikoa modu eraginkorragoan eta jasangarriagoan eratzen laguntzeko, eraikuntza sektorearen industrializazio-estrategia ezarri.

Itunaren emaitza gisa, Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroa sortu da. Foro hori funtsezko erreferentzia izango da jarduera-ardatz hori bultzatzeko, eta dagoeneko martxan dauden hainbat lantaldetan egituratuta dago. Lantalde horietatik, sektorearen etorkizunean eragin positiboa izango duten emaitza eraginkorrak lortzea espero da.